

OLERTI EGUNA

Alde aurretik iragarrita egoanez, joan dan azillaren 26'an, igandez, ospatu zan Zornotza'ko Larrea'n, karmeldarren komentuan, Olerti Egu-
na, 1959'tik utsik egin bage urtero ospatu izan dana.

Urtero euskal idazle naiz olerkari baten omenez egin izan da, ta aur-
tengo Arana-Goiri'ren omenez jaitu genduan. Euria ta alboko mendi-
kaskoetan edurra zan arren, jentea polito batu zan, eta meza nagusi
ostean, sariak banandu, lanak irakurri, oizko bazkaria, alkar-izketa goxo,
kanta, bertso ta gaiñerakoekin, ederto igaro zan eguna, eder-giro ta sen
gandiz gaiñezka.

Lau sail ziran aurtengo sariketan: Lirika saila; Arana-Goiri'ren go-
lirika saillean, P. Solozabal'en «Mendigain»; Arana'ren oroi-saillean, B.
muta-saila; bertso-saila, ta saiekera saila. Lau sailotarako 32 lan jaso
ziran, eta epaimaikoak (Fernando Artola, Martin Iturbe ta A. Onaindia):
Aurre-Apraiz'en «Sabin'en gomutaz»; bertso-saillean, P. Loidi'ren «Ka-
rrantza'ko goraberak», eta saiakeran A. Onaindia'ren «Arana-Goiri'tar
Sabin, olerkari». Aipemenak be izan ebezan Jesus Gaztañaga'k, J. Beiz-
tegi'k eta A. Zubikarai'k.

Datorren urteko Olerti Eguna J. Zaitegi'ren omenetan izanko da,
Jainkoa lagun; eta «Euzko Gogoa» sortu ta geroztik egin dauan lan ede-
iragaitik esker ona agertzeko izango da batez be.

Epai-maikoak, oitura dogunez, igaz len-saria eroan eban Martin Iturbe
ta aurtengo biak, Solozabal eta Aurre-Apraiz, izango dira.

Onez gaiñ, olerki-zaletasuna sendotu ta indartzeko barrero be, azke-
nengo zortzi urte oneitan ixillik egon dan «Olerti» ateratea erabagi zan.
Bertsolari ta olerkariak girotu oi dabe bereziki erria; baita idazleak
suspertu ta goi-maillako idazle egiten lagundu be. Leen, amar urteko
ekitaldi jori bizian, ainbat olerkarik, nai batekoak nai bestekoak artu
eben parte aldizkari au txukun ateraten; gerra osteko olerkaririk geienak
ementxe argitara ebezan euren lan baliotsuak. Aro barri onetan be,
beste orrenbeste egingo dabelakotan gagoz. Betoz guztion lanak ugari!

A. O.